



## TBAI jaulkitzeko gailuak

- Sarrera
- Gailua lotzea

Oharra: Argitalpen hau informazioa emateko baino ez da, zerga betebeharrak Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 81. artikuluan ezarritakoaren arabera betetzen laguntzeko.

Informazio hau gorabehera, fakturak egitean, TicketBAI fitxategiak sortu, sinatu eta bidaltzean, eta zerga aitortpenak aurkeztean, unean-unean indarrean dagoen araudian xedatutakoa bete beharko da.

## ZER BEHAR DUT BIDALTZEN HASTEKO?

- ✓ **Internet konexioa**
- ✓ **Software berme-emailea**
- ✓ **Pertsona fisikoaren/juridikoaren/gailuaren/autonomoaren ziurtagiri digitala** (erakunde ziurtatzaile baten bidez lortua; adibidez, Izenpe, DNle, ACA, FNMT...)
- ✓ **Gailua** (TPV, datafonia, balantza, ordenagailua...)

Fitxategiak bidaltzeko erabiltzen den gailuak hura erabiliko duen enpresaren edo pertsona fisikoaren IFZri lotuta egon beharko du.

### Gailuak honako hauekin egin ahal izango ditu bidalketak:

- **Pertsona fisikoaren/juridikoaren/autonomoaren ziurtagiria** (ez da beharrezkoa lotura egitea). Gailuan instalatu beharko da.
- **Gailu ziurtagiria:** Gailu ziurtagiriak kualifikaziorik gabeko ziurtagiriak dira; hau da, gailu bat identifikatzen dute, baina ez dute identifikatzen nori dagokion gailu hori. Kasu horretan, **GAILUA LOTU** beharko da, urrats hauei jarraituz:
  - 1º. Gailu ziurtagiria lortu behar da erakunde ziurtatzailearen bidez.
  - 2º. Ziurtagiria instalatu behar da gailuan.
  - 3º. Aplikazioan sartu eta eskuratutako gailu ziurtagiria erregistratu behar da, fakturen jaulkitzailearen eta erabilitako gailu ziurtagiriaren arteko lotura ezartzeko.

## ZER BEHAR DUT GAILUA LOTZEKO?

- ✓ **Internet konexioa**
- ✓ **Software berme-emailean instalatutako gailu ziurtagiriaren serie zenbakia.**  
Oharra: Garrantzitsua da gailu ziurtagiriaren serie zenbakia hartan agertzen den bezala kopiatzea.  
Ezin du zuriunerik izan.
- ✓ **Jaulkitzailearen ziurtagiri digitala**

Gailu ziurtagiria lortu eta instalatu ondoren, eta fakturak jaulkitzen hasi aurretik, ARABA.EUS web orriko TicketBAI webgunean sartu beharko duzu, eta **gailu ziurtagiri hori hura erabiliko duen enpresaren edo pertsona fisikoaren IFZrekin lotu:**

<https://web.araba.eus/eu/ogasuna/ticketbai/gailu-ziurtagirien-erregistroa>

Gailu ziurtagiria erregistratu eta lotzeko, fakturen jaulkitzailearen edo haren borondatezko ordezkariaren (2-d maila) ziurtagiri digitalarekin sartu beharko duzu.

Gailu ziurtagiri bat **zenbait faktura jaulkitzailearekin lotu** daiteke.

## Gailu ziurtagirien erregistroa

---



Sartu Erregistrora

- > [Sartu Erregistrora \(Proben bertsioa\)](#)
- > [Nola lortu gailu ziurtagiriaren serie zenbakia](#)

Gailu ziurtagiriaren serie zenbakia lortzeko informazio erabilgarria duzu hemen

Gailu ziurtagiriak kualifikaziorik gabeko ziurtagiriak dira, hau da, gailu bat identifikatzen dute, baina ez dute identifikatzen nori dagokion gailu hori.

Horregatik, TicketBAI fitxategiak bidaltzeko gailu ziurtagiriak erabiltzen badira, aplikazioan sartu eta erregistratu behar dituzu, fakturen jaulkitzailearen eta erabilitako gailu ziurtagiriaren arteko erlazioa ezarri.

Jaulkitzailearen IFZren eta gailu ziurtagiriaren arteko lotura hori behin bakarrik egin behar da, TicketBAI fakturak jaulkitzen hasi aurretik.

Gailu ziurtagiri bat hainbat faktura jaulkitzailerekin lotu daiteke.

## Gailu berria

Jaulkitzailearen IFZ

99999972C

Ziurtagiriaren serie zenbakia \*

Deskribapena

Gorde

Utzi

**Gailu ziurtagiriaren serie zenbakia 32 digituko kode alfanumeriko bat izan ohi da eta IZENPEk ematen du(31koa izanez gero, aurretik 0 jarri behar da). Garrantzitsua da zure gailuan agertzen den bezala kopiatzea. Garrantzitsua da Izenpen agertzen den bezala kopiatzea. Ezin du zuriunerik izan.**

Gailu bat baino gehiago baduzu, komeni da identifikatzen lagunduko dizun deskribapen bat idaztea.



Oharra: Argitalpen hau informazioa emateko baino ez da, zerga betebeharrak Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 81. artikuluan ezarritakoaren arabera betetzen laguntzeko.

Informazio hau gorabehera, fakturak egitean, TicketBAI fitxategiak sortu, sinatu eta bidaltzean, eta zerga aitortpenak aurkeztean, unean-unean indarrean dagoen araudian xedatutakoa bete beharko da.